

MENTXAKAREN AITORPENA: oso gazte izan genuen ETArene berri

(...)

Oso gazte izan genuen ETArene berri. Aldian behin ekintzaren bat egiten zuten, eta poz hartzen genuen. Idealizatuta geneukan erakunde armatua. Gudari gaztez osatutako gerrillak imajinatzen genituen Euskal Herriko mendietan, eta beraiek bezalakoak izan nahi genuen. ETArene izena hasi ginenean herriko ingurueta pintatzen. Handik egun batzuetara ezabatzen zitzuten denak, baina horrek aurrera egiteko gogoa ematen zigun, eta Euskadiren ideiak gero eta indar handiagoa hartu zuen gusan. Etnia, abertzetasuna, independentzia, kapitalismoa, sozialismoa eta antzeko kontzeptuak aztertu genituen taldean, eta, aldi berean, isilpeko lanetan sartu ginenean gero eta gehiago. Gauez ateratzen ginenean, eta, ausardiaz baterik, guardia zibilaren haserrea piztea genuen helburu.

Ipar Amerikako armada Vietnam ari zen bombardatzeko; Txinan, Iraultza Kulturalaren garaian zeuden, eta guardia gorriak zebiltzan kaleetan desfilatzen; Spainiako Gobernuak, artean, Estatuaren Lege Organikoari buruzko erreferendumera deitu zuen 1966ko abenduaren 14rako. “Veinticinco años de paz”, “Tú eres España; tuyo es el progreso” eta antzekoak ari ziren komunikabide ofizialen bitartez etengabe zabaltzen, eta propaganda eta boto-txartelak bidali zitzuten etxe guztietara. Ez genuen aukera politiko hura alferrik galdu nahi izan, eta parte hartzeko prest geunden. Gau batean taldean atera ginenean, eta Andoaingo Udaletxearen kanpainari begira jarrita zeuden erakusleihoko guztiak puskatu genituen.

Erreferendumaren kontrako ekintza egin eta herria pintadaz bete ondoren, eraso serioagoak bideratzea erabaki genuen. Arma zahar batzuk bageneuzkan, eta trebakuntza militarra emateko eskatu genion aspaldiko lagun bat. Teoria pixka batekin batera, leherkariak nola erabiltzen ziren erakutsi zigun, eta pistola, errifle eta subfusilekin ere egiten genituen tiro-saio batzuk aldian behin.

Hegazkinen kontrako kanoi bat ere (Vofors markakoa) erre genuen garai hartan gasolinarekin su emanda. Andoaingo lantegi batera ekarri zuten Soraluzetik konpontzera, eta zaindarien arduragabekeria baliatu zitzaigun gure lana bete ahal izateko. Armada zen gure ustez frankismoaren bizkarrezurra. Ez geneukan ezer inprimatzeko modurik oraindik, eta ezin izan genuen ekintzaren inguruko propagandarik egin.

Andoaindik pasatu zen lehenengo liberatua Emilio Lopez Adan “Beltza” izan zen. V. Biltzarreko erabakiak eta lau fronteen taktika azaldu zizkigun: langileenak, kulturala, politikoa eta militarra. Handik aurrera gure taldea ETArekin lotuta gelditu zen ofizialki. Iñaki Arin (gero, “Lizar”), Iñigo S., Jose Luis I. eta neu (gero, Ardotxi, Gorri,

MENTXAKAREN AITORPENA: oso gazte izan genuen ETAren berri

Montes eta Mentxaka), lau lagun ginen guztira. Jende gehiago geureganatzeko asmotan genbiltzan –propaganda banatzeko, besteak beste–, baina erorikoak gertatu ziren. 1968ko abuztuaren 2an, Meliton Manzanas, Gipuzkoako Poliziaren Erakunde Nagusiko eta Brigada Sozialeko burua hil zuen ETAk, eta ekintza hura propaganda bidez azaltzeko ahaleginak atxiloketa asko ekarri zituen.

Abuztuaren 6an Salbuespen Egoera ezarri zuten Gipuzkoan, eta Spainiarren Foruko zenbait artikulu indarrik gabe gelditu ziren. Hilaren 9an, Lizar harrapatu zuten, eta 10ean, Iñigo eta ni neu.

Etxerako bidean guardia zibil baten aurretik pasatu behar izaten genuen egunero goizean, eta akabatzeko moduko begiradak botatzen zizkigun ikusi orduko. La Voz de España egunkaria zenbait erreportaje argitaratzen hasi zen ETArri buruz, eta hutsik egin gabe irakurtzen zituela komentatu genion Iñigok eta biok elkarri.

–Honek astindu egin behar gaitik; ikusiko duk... –esan nion egun hartan lagunari.

Asmatu egin nuen. Handik gutxira, alto emanda, ibai ondoko kuartel txikira eraman gintuen.

–Zuek! Ikusi zer dakaren hemen! –esan eta egunkaria bota zigun mahai gainera gorrotoz.

Titularrak horrela zioen: “El instructor en técnicas terroristas es un antiguo oficial de la Gestapo alemana”. “Algunos capitalistas de nuestra región han ayudado económicamente al terrorismo”.

Behatzarekin erakutsi, eta irakurri, irakur ezak ozen! esan zidan.

Ez nuen agindua bete beste erremediorik izan:

–Ekarri egunkari hori! Nahikoa duk! –esan zigun-. Eta zuek, putakumeak, non ikasi duzue?

Aulkitik lurrera bota, eta ostikoka eta kolpeka hasi zitzaigun, Zeinek? Zeinek erakutsi dizue? esaten zuen amorruz eta gorrotoz beterik. Iñigo eta biok, lurrean kuzkurtuta, etengabeko erasoari aurre egiten saiatu ginen.

–Zutik! –agindu zigun pistolarekin kanoia guregana begira-. Ikusiko diagu hurrena nor akabatzen duzuen! Hiltzaile zikinak!

MENTXAKAREN AITORPENA: oso gazte izan genuen ETaren berri

Beste gela batera eraman gintuen eta, bizkarra zutabe baten kontra, eskuburdinak jarri zizkigun, elkarri lotuta. Ahalik gehienetan estutu zizkigun, burdina haragian sartu eta eskumuturrak handitu zekizkigun.

–Horrela ikasiko duzue! –esan zigun azkenean oihuka.

Gau osoa eman genuen jarrera horretan, eta hurrengo goizean Guardia Zibilaren Donostiako komandantziara eraman gintuzten. 1968ko abuztuaren 14a zen: 20 urte bete nituen egun hartan.

Guk bagenekien gure bila zebiltzala, baina, ondo pentsatu ondoren, zain gelditu ginen harrapatu gintuzten arte. Orriak banatzen ibili al ginen galdetu ziguten, eta onartu egin genuen, baina Andoaingo ETAko taldean genbiltzala aitortzeko agindu zigutenean, ezetzari eutsi genion. Esan bezala, pintaketak eta propaganda ateratzen zituen sargentuak galdeketan, baina, uste genuenaren kontra, ez zituen beste ekintza batzuk aipatu.

Astindu ederra eman zigun, baina ez gintuen aldez aurretik espero genuen adina behartu. Guardia zibil soil baten eskuetan utzi gintuen gero, eta askoz ere tratu txarragoa eman zigun; galderak ia kontuan hartu gabe, jo eta jo aritu zitzaigun amorruz beteta.

Militar itxurako gizon bat etorri zen gero, kalez jantzita eta betaurreko beltzakin, eta, zoko estu bat erakutsi ondoren, etor zaitezte hona... eta isilik! Hitz egitea debekatuta daukazue esan zigun.

Atxilotutako jendez beteta zegoan bebarua. Erreenteria, Oiartzun eta Donostiako erakundea ia osorik erori zen; laurogeiren bat militante guztira. Batzuk –poliziaren ustez arriskugarrienak, beharbada– ziegetan sartu zituzten, eta gainezka zeuden.

Iñigo eta biok, beste hamabosten bat lagunekin batera, sotoan zegoen zurgindegia batean jarri gintuzten. Egurra marruskatzeko makinen eta zerren artean, etzanda egon behar izan genuen txirbilaren gainean, banaka lotuta, isilik, bata bestarengandik urrutti. Batzuek jipoia seinalea zeramaten nabarmen, eta, arma eskuan, guardia zibil batek zaintzen gintuen.

Kolpe sor bat entzun nuen handik pixka batera, eta gero garris bat; gero beste bat, eta gero kolpe eta garris gehiago, batzuk besteekin nahastuta. Ziegetatik zetozent. Belarri-zuloetatik sartzen zitzaizkidan, eta emozio kontrajarriak sortzen zizkidaten barruan: beldurra eta amorrua, adorea eta koldarkeria, aldi berean. Gero eta kolpe gehiago entzun genituen, baina garrisak isildu egin ziren, eta,

MENTXAKAREN AITORPENA: oso gazte izan genuen ETaren berri

handik aurrera, aiene luze bat eta kexu apal batzuk bazik ez zitzaizkigun ailegatu.

-Zer gertatzen duk? -galdetu nion isilpean ondoko bati.

-Oiartzungo mutil bat duk; Arakama, eta Meliton Manzanasesen hilketari buruz ari zaizkiok galdezka, aitzurraren kirtenarekin jo eta jo.

Handik tarte batera, sozialak atera ziren taldean Arakamaren ziegatik, eta beste norabait eraman zuten. Arrastaka zeramatzen gorputz handi hura. Une batez bonbilla baten argitan ikusi ahal izan nuen haren aurpegia. Odoletan zegoen erabat, eta izua eragin zidan.

Berehala ailegatu zen nire txanda.

Gela txiki zikin batera eraman ninduten. Losada, Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzuko sarjentua zegoen nire zain.

-Garai batean Andoaingo kuarterean eman nian bolada bat, ba al hekien? -esan zidan.

Ez nekien, baina ez nion ezer erantzun.

-Zergatik zabaldu zenuten hilketaren aldeko propaganda?

-Ailegatu egin zitzaigun, eta bota egin genuen.

-ETAko haiz, ezta?

-Ez, ez naiz ETAko.

Ordura arte nahiko trankil ematen zuen, baina bat-batean, aurpegia itsustu, eta lehenengo belarrondokoa eman zidan. Balantzaka utzi ninduen.

-ETAko al haiz? -galdetu zidan berriz, eta borra bat hartu zuen eskuan.

-Ez! -erantzun nion, ahotsean dardara, ziegaren bazter batean kuzkurtuta.

Behin eta berriz jo ninduen bizkarrean borrarekin. Kolpe bakoitzean, Melitonengatik! eta, Txabi Etxebarrietak hil zuen zirkulazio-guardia gogoan, Pardinesengatik! esaten zidan sarjentuak oihuka.

MENTXAKAREN AITORPENA: oso gazte izan genuen ETaren berri

Ordubete baino gehiago iraun zuen tormentuak, eta, bukatutakoan, gela batera eraman ninduten Lopez sarjentuaren aurrera. Mahai baten atzean eserita zegoen, makinaz idazten. Altxatu eta parez pare jarri zitzaidan. Bere gorpuzkera handiak, aurpegiko orbanak... beldurra eman zidaten.

–Ez duk, beraz, onartzen ETAko haizenik? –egin zuen orro haserre.

Ezetz adierazi nion buruarekin. Belarrondokoa emanda, lurrera bota ninduen bat-batean.

–Iñaki Arinek eta beste guztiekin onartu egin ditek –jarri zidan aitorpen idatzia begien aurrean-. Inozokeria duk, denbora ari haiz alferrik galtzen. Sina ezak!

Iñaki Arinek kaptatu omen ninduen maiatzean. Hala zioen aitorpenean. ETAko nintzen, eta propaganda subertsiboa zabaltzea izan zen nire ordura arteko lana.

Ikaratuta, minbera, aitorpena sinatu nuen azkenean.

Zurgindegian, Losada sarjentua hurbildu zitzaidan eta, isekaz, horrela esan zidan: gaur hire urtemuga duk, ezta? Hire izenean egin diagu topa. Pastelak eta xanpaina ekarri zizkigutek, eta ederrak zeudean, benetan! Eskertzekoak duk! Irribarre egin zuen ondoren, eta, besterik gabe, etorritako bidetik egin zuen alde.

Mentxakaren aitorpena, 51-57 or.